

Azaroaren 4an URTEAN ZEHARREKO 31. IGANDEA

Agurra

Jainko itxaropen-emailea, Espiritu Santuaren egintzari esker bere pozaz eta bakeaz betetzen gaituena, izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Garrantzitsuena zer den gogoratuko digu gaurko Jainkoaren Hitzak: gure bizitzarekin Jainkoarentzat pozgarri izatea, egiaz maitatzea. Maitasun hori, elkarrekiko maitasunean eta zerbitzuan egikaritzen da, alegia, egia dela agerian geratzen da. Eukaristiak Jainkoaren maitasun misterioan murgiltzen gaitu eta maitasunaren agindu nagusi hori betetzen irakasten digu.

Damu-otoitza

Aitor dezagun bekatari garela eta eska diezaiogun apalik barkamena zeruetako Aitari, guk ere geure senideei bihotzez barkatuz.

- Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, indargabeen babesleku zarena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun errukitsua,
zure graziari esker,
ongi zerbitzatzen zaituzte fededunek;
egizu, arren, Zuk agindutako ondasunetara
eragozpenik gabe joan gaitzela.**

nagusi; legea baino geroagokoa den Jainkoaren zinak, ordea, Semea izendatu du apaiz nagusi, betieran bete-beteko dena.

Aleluia (Jn 14, 23)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∕. Ni maite nauenak gordeko du nire hitza, **dio** Jaunak;
nire Aitak maite **izango** du,
eta Aita eta biok harengana etor**rriko** gara. ∕.

Ebanjelioa (Mk 12, 28b-34)

Homiliarako argibideak

Azaleko ateismoa

Aski jende igaro da, azken urte hauetan, Jainkoarekiko fede arin eta azalekotik ateismo, era berean, arin eta erantzukizun gabeko batera. Badira beren bizitzatik jarduera erlijioso guztiak uxatu dituztenak, eta elkarte fededun batekiko harreman guztiak eten dituztenak. Baina aski al da hori, pertsona batek bizitzaren azken misterioarekin duen jarrera serioski konpontzeko?

Badira esaten dutenak, ez dutela sinesten, ez Elizan, ez «apaizen asmakizunetan», baina Jainkoagan sinesten dutela. Alabaina, zer esan nahi du Jainkoagan zure sinesteak, hartaz sekula gogoratzen ez bazara, harekin sekula hitz egiten ez baduzu, hari sekula entzuten ez badiozu, harengandik inolako gozamenik espero ez baduzu?

Beste batzuek aldarrikatzen dute, badela ordua Jainkoa gabe bizitzen ikasteko, nork bere bizitzari duintasun eta nortasun handiagoz aurre eginez. Baina, halakoen bizitzari hurbiletik erreparatzen diogunean, ez da izaten gauza erraza ikustea, zertan zehazki lagundu dien Jainkoa alde batera uzteak bizitza duinago eta erantzukizun handiagoz bizitzen.

Beste batzuek, aski jendek, beren erlijio propioa eraiki dute eta beren moral propioa eratu, beren neurrikoa. Ez dira saiatu beste ezertan, bizitzan aski eroso kokatzen ez bada, beraien bizitza seriooki dilindan ipintzen duen galdekizun oro saihestuz.

Beste batzuek ez lukete jakingo erantzuten, Jainkoagan sinesten duten ala ez. Izatez, ez dute ulertzen zertako den on halako gauza hori. Lanari eta gozatzeari hain emanik bizi dira, eguneroko problemetan, aste-bukaerako telebista-egitarauetan eta aldizkarietan hain zabarturik, non Jainkoak ez baitu inolako txokorik beraien bizitzan.

Baina oker pentsatuko genuke fededunok, uste izango bagenu, ateismo arin hau pertsona horiena bakarrik dela, Jainkoagan ez dutela sinesten ozenki esatera ausartzen diren horiena bakarrik, alegia. Izan ere, ateismo hau sartuz doake geure burua fededun aitortzen dugunon bihotzean ere: batzuetan guk geuk ere uste izaten dugu, Jainkoa ez dela geure bizitzako Jaun bakarra, ezta garrantzizkoena ere.

Egin dezagun proba bakar bat. Zer sentitzen dugu geure kontzientziaren barruenean, hitz hauek entzun ditugunean mantso-mantso, behin eta berriz eta egiazaletasunez: «*Entzun: Jainko gure Jauna da Jaun bakarra. Maita ezazu Jainkoa, zeure Jauna, zeure bihotz guztiaz, zeure arima guztiaz, zeure gogo guztiaz, zeure indar guztiez*»? Zein eremu hartzen du Jainkoak nire bihotzean, nire ariman, nire gogoan, nire izate guztian?

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak eta eman diezagula behar dugun laguntza:

- Jainkoak isur dezala Elizarengan apaltasun eta sendotasun espiritua eta sorrarazi ditzala Ebanjelioaren zerbitzari leial izango diren era guztietako bokaziodunak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoak ernaraz dezala agintariengan on egiteko borondatea eta hauek erraz dezatela guztiontzat ongizatezko eta justiziazko bizimodua. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoak lagun diezagula guztioi gure zailtasun eta ezinetan, eta eman diezaiera hiltzorian daudenei bakea eta atsedena. Egigun otoitz. R/.
- Jainkoak sendo gaitzala fedean eta eman diezagula guztioi beti on egiteko laguntza. Eska diezaiogun Jaunari.

Gure Jainko eta gure Aita, emaguzu Zure grazia, oso-osorik zerbitza zaitzagun eta Berri Ona dugun Zure Semea izan dadin beti gure bizitzaren erdigune eta salbamen-bide. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Gero eta gehiago agertu bedi guban, Jauna, zure indarra;
hartu ditugun sakramentuez sendoturik,
beroiek agintzen dizkiguten ondasunak lortzeko
zure graziak gai egin gaitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**